

IKASTURTE BERRIA MARTXAN DA

2500 ume hasiko dira gaur eskolan

Gehienak goizez bakarrik ariko dira ikasturte hasieran.

Hernaniko zazpi ikastetxeetan (Urumea, Langile, Elizatxo, Mariluts, La inmaculada, Txirrita eta Hernani institutoan), 2500 ume hasiko dira gaur klaseetan. Hauei Donostiara edo inguruko herrietara joaten

direnak (eta ez dira gutxi) erantsi beharko genizkieke benetako kopurua jakiteko.

Hernanin, jaiotze tasa asko haunditu da, hala diote haur eskolan behintzat “gero eta eskari haundiagoa dugu, baina guk ez dugu tokirik”.

Haur hezkuntzan (hiru urte arte) 54 haur dabilta; haur eta lehen hezkuntzan (hamabi urte arte) 1500 inguru; DBHn (hamasei urte arte) 600; eta DBHOn (hemezortzi arte) 300. Irakasleak, berriz, 261 dira guztira. □

■ FUTBOL LIGA

Hernanik ezin Errealaren kontra etxeko lehen partiduan

Fermin Cuestari omenaldia egin zitzaion partidua hasi baino lehen.



Fermin Cuesta ohorezko sakea egiten. Arin dago oraindik gizona!

Hernani	Erreala
0	2

HAMAIKAKOAK:

Hernani: Arkaitz, Eusko, Iñaki, Plaza, Eneko, Zapiain, Barandiaran, Aitor, Insausti, Iker eta Lasa. Ordezkoak: Egoitz, Edu, Duran, Saizar eta Arrondo.

Erreala: LLorca, Montes, Zarzuelo, Blazquez, Alvarez de Eulate, Laba-ka, Sergio Francisco, Eizagirre, Ale-jandro, Jimenez eta Mikel Alonso. Ordezkoak: Aranzeta, Esnaola, Alberdi, Elorriaga eta Uranga.

EPAILEA: ANTIXON NAVARRO

SARRERA: 500 lagun (350 bazkideak)

HERNANIARREK (3.maila) ezin izan zuten atzo punturikan lortu Errealaren aurka. Lehen zatian ondo eutsi bazioten ere, bigarren zatian bi gol egin zizkieten. Lehenengoa falta baten bidez: baloiak barreran jo eta porteroak urrundu ezin!

Erretxazeen sarera sartu zuten. Bigarrena korer batean: bigarren zutoinean defentsarik ez, eta kontrarioak eragozpenik gabe barrura.

Preferentekoek, berriz, bina berdindu zuten Oiartzunen aurka atzo goizean. □



MUEBLES HERNANI

Esposizio aldaketa.
Beharpen bereziak.

HERNANI ALTZARIAK, Gartzia Goldaraz 8 HERNANI

MUSIKA ESKOLA

Aste honetan eman behar da izena

Jo nahi den instrumentuaren arabera, gaur, bihar, etzi edo etzi damu eman behar da izena.



Hernaniko musikari gazteak lehengo ikasturtean.

MUSIKA eskola publikoa ikasturte berriari begira dago dagoeneko eta gaur irekiko ditu izena emateko zerrendak.

Alboka, dultzaina, txalaparta, txistua edo trikitixa jo nahi dutenek gaur dute eguna; klarinetea, tronpeta edo saxofoia jo nahi dutenek bihar; bibolina edo pianoa jo nahi dutenek etzi; eta perkusioa edo akordeoia jo nahi

dutenek ostegunean. Izena Musika eskolan bertan eman behar da (Atzietan) arratsaldeko zazpitan.

PREZIO EZBERDINAK

Nolako instrumentu eta maila, halako prezioa ordaindu beharko da aurtengo matrikula. Hernaniarrentzat merkeago; eta familia ugarikoek, berriz, are eta merkeago izango dute matrikula. □

■ IGERIKETA

Nagusiek gaur hasiko dituzte entrenamenduak

Seiak eta erdietan elkartuko dira kiroldegian “taldeko argazkia” ateratzeko.

IGERILARIAK ere hasi dira datorren denboraldia prestatzen. Denera, batzaz beste, 80 igerilari izaten dira Hernaniko Igerilari Elkartearen.

Gaur talde osoaren argazkia ateratzeko bilduko dira, baina, zaharrenak bakarrik hasiko dira entrenatzen. Gai-

nerakoek aurrerago ekingo diote denboraldi berriari.

AURREKOAN FUERTE

Hernaniarrek sekulako denboraldi bukaera egin zuten. Ordizian jokaturako Gipuzkoako txapelketan 10 medaila irabazi zituzte. □

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



kutxa

zuri esker

MENDIRIZ MENDI

Gaztetxoak Erniora joango dira datorren igandean

Irailean, igandero erromeria izaten da Zelatunen



Ernio (1075m) elurtua; Bidegoianetik begiratuta.

MENDIRIZ MENDI*K* Ernio-
ora ibilaldia antolatu du gazte-
txoentzat. Irailean, igandero
da erromeria, baina, girorik

onena azken bietan izaten da,
Kontxako estropadak pasata.
Izena emateko, elkartean ber-
tan.☎ 943 332745 ☐

EHE-k eta udalak hitzarmena sinatu dute

Euskal Herrian Euskaraz
eta Hernaniko Udalak el-
karlanerako bidea lotu du-
te. Manuel Fraile Alkaeor-
deak eta Eli Ansa EHE-
kideak sinatu dute. Udalak
“garrantzi handikoa” irizten
dio euskara talde honen
lanari eta aurrera begira
babesteko konpromezua
hartzen du. Oraingoz, EHE
100.000 pezetako dirula-
guntza ja-soko du eta bere
proiektuek udalaren subent-
zioa izateko aukera dute.
Bestetik, udalak euskara
elkarteari Larramendin
uzten dion lokala berritu
egingo du eta mantenimen-
du gastuak (garbitasuna, ura
eta argia) bere gain hartu.
Aurrera begira, EHEk osa-
sun arloan bilduko ditu bere
proiektuak. ☐

ESPAINIAKO GERRA ZIBILA HERNANIN

Etzi 64 urte sartu ziren Francoren tropak Hernanin, 1936ko irailaren 13an

Tropak sartu eta hilabetera, urrian izan zen errepresio garairik gogorrena.



Gerran fisilatutakoen hildakoen plakak hilerrian, hil zituzten leku berean.

KANPOSANTUAN sartu eta
bukaeran hantxe dago, Fran-
coren gerrak Hernanin utzi
zuenaren parte bat: denera,
200 gora hildako (fusila-
tuak, frentean hilak...) Fran-

coren bandoan hildako her-
naniarrak ere 40tik gora dira.
Haiei egindako monumentua
bonba batek bota zuen.
Hilerrian ez daude berta-
koak bakarrik. Zumarraga eta

Urretxuko koadrila haundia
dago. Jose Ariztimuño *Aitzol*
apaiz eta euskaltzale tolosarra
ere han dago. Oraindik bada ia
larunbatero lore eta guzti bisi-
tan jaoaten denik. ☐

LEHIAKETA

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



KRONIKAk proban jarriko zaitu. Ia Hernani zenbat eza-
gutzen duzun benetan! Guk, astelehenero, herriko leku edo
gauza baten argazkia aterako dugu eta zuk zein tokitan
dagoen asmatu.

- **Erantzunak:** *Kronika*ko buzoian utzi: Larramendi 11,
behea. Izen-abizenak eta telefonoa jarri.
- **Epea:** astebete.
- **Aurreko astekoa:** Elizako eguzki ordularia.
- **Asmatu dutenak:** Garikoitz Izagirre, Olaia Eizagirre eta
Joxe M^a Zelarain.
(Saria gehien asmatzen dituenak eramango du)

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa:943 333288
- DYA: 943 464622
943 335533
- Anbulatorioa: 943 557750

Asteartea

- Egunez: Correa
Antziola,44
☎ 943 336022
- Gaez: Oa
Usurbil. 1 Poligonoa, 1
☎ 943 376076

✚ FARMAZIAK

- Egunez: Irigoyen
Elkano,2
☎ 943 552087
- Gaez: Iturralde
Usurbil. 13 Poligonoa, 9
☎ 943 363395

Asteazkena

- Egunez: Gomez
Nagusia, 15
☎ 943 554892
- Gaez: Tanco
Urnieta. San Juan, 36
☎ 943 550942

KIROL EMAITZAK

Ostirala

■ PELOTA

Profesionalak
EsnaI-Mendia 22
Zabala-Fuertes 12

Larunbata

■ FUTBOLA

Nazional mailako jubenilak
Añorgak 4 Hernani 1
Ohorezko mailako jubenilak
Hernanik 0 Eibarre 1

■ PELOTA

Profesionalak
Zabala-Odriozola 22
EsnaI-Aldazabal IV 14

Igandea

■ FUTBOLA

3.mailakoak
Hernani 0 Erreala “B” 2
Ohorezko mailakoak
Hernani 2 Oiartzun 2

IRAGARKI MERKEAK

► Etxeko lanak egiten eta umeak zaintzen lan egingo nuke.
Ordutegia aukeran. **608.74 22 33**. Deitu 14:00etatik aurrera.

► Edadeko jendea edo gaixoak zainduko nituzke asteburuetan,
nahiz etxean nahiz ospitalean. Badut esperientzia. **627 611161**.